



ABANDOKO  
SAN BIZENTE MARTIRIAREN  
PARROKIA

PARROQUIA  
DE SAN VICENTE MÁRTIR  
DE ABANDO

Done Bikendi plaza 3. 48001 Bilbao (Bizkaia)  
T. 94 423 12 96  
parroquia@sanvicentemartirdeabando.org

## EBANJELIOA: BEHAR DUGUN BERRIA

“Gerta bekit zuk esan bezala”

2020ko abenduaren 20a  
Abenduko 4. igandea (B)

### Lukas 1, 26-38

Handik sei hilabetera, Jainkoak Gabriel aingerua bidali zuen Nazaret zeritzan Galileako herri batera, birjina batengana; birjinak Maria zuen izena, eta Jose zeritzan Daviden jatorriko gizon batekin ezkontzeko hitz emana zegoen. Aingeruak, Mariarenean sarturik, esan zion: Agur, Jainkoaren gogoko hori! Jauna zurekin.

Hitz hauek entzutean, ikaratu egin zen Maria eta agur horrek zer esan nahi ote zuen galdetzen zion bere buruari. Aingeruak esan zion: Ez beldurtu, Maria! Jainkoak gogoko zaitu. Hara, haurdun gertatuko zara, semea izango duzu eta Jesus ipiniko diozu izena. Handia izango da, Goi-goikoaren Seme deituko diote, eta bere aita Daviden tronua emango dio Jainko Jaunak. Israel herriko errege izango da betiko, eta beraren erregetzak ez du azkenik izango.

Mariak esan zion aingeruari: Baina nola gerta daiteke hori, ez bainaiz gizon batekin bizi?

Aingeruak erantzun zion: Espiritu Santua etorriko da zuregana, Goi-goikoaren indarrak hodeiak bezala estaliko zaitu; horregatik, zuregandik jaioko dena santua izango da eta Jainkoaren Seme deituko diote. Begira, Elisabet zure lehengusina ere haurdun gertatu da bere zaharrean eta sei hilabeteko dago agorra omen zena; Jainkoarentzat ez baita ezer ezinezkorik.

Orduan, esan zuen Mariak: Hona hemen Jaunaren mirabea. Gerta bekit zuk esan bezala. Eta aingeruak utzi egin zuen.

Sabelean semea sortu ta egingo dozu. Ona emen Jaunaren mirabea. Ona emen gure eredia.

## POZIK ETA KONFIANTZAZ

*Jose Antonio Pagola*

Vatikano II.ak «Elizaren prototipo eta eredutzat» eman du Andre Maria, Jesu Kristoren Ama. Eta emakume apal bezala deskribatu du, Jainkoa konfiantzaz eta pozik entzuten duena bezala.

«**Poztu zaituz**». Horra Mariak Jainkoagandik entzun duen lehenengo gauza; gaur ere entzun beharko genukeena. Pozaren falta dugu geure artean. Sarritan kutsatzen gaitu Eliza zaharkitu eta ahituaren tristurak. Jesus ez ote da jada Berri On? Ez ote dugu sentitzen haren jarraitzaile izatearen poza? Poza falta denean, freskotasuna galtzen du fedea, amultsutasuna galtzen da, fededunen arteko adiskidetasuna hozten da. Premia gorrikoa da gure elkarteetan poza esnaraztea eta Jesusek ondare utzi digun bakea berreskuratzea.

«**Jauna zeurekin duzu**». Ez da erraza gaur eguneko Elizan pozik bizitzea. Soilik, Jainkoagan konfiantza baduzu lortuko duzu hori. Ez gara umezurtz. Lagun dugun Aitari deika ari gara egunero, defendatzaile dugun eta beti gizakiaren onaren bila dabilen Aitari deika.

Batzuetan hain nahasia eta galdua den Eliza hau, Ebanjeliora nola itzuli ez dakien hau, ez da bizi bakarrik. Jesus, Artzain Ona, gure bila dabil. Haren Espiritua gu nola erakarriko dabil; haren hatsa eta ulermena geurekin dugu. Jesusek ez gaitu utzi bertan behera. Harekin dena da posible.

«**Ez beldur izan**». Beldur askok zurruntzen gaitu Jesusen jarraitzaileok. Beldurra mundu modernoari eta sekularizazioari. Beldurra ziurtasunik gabeko geroari. Beldurra geure ahuldadeari. Beldurra Ebanjeliora bihurtzeari. Kalte handia ari zaigu egiten beldurra. Etorkizunerantz esperantzaz bide egitea eragozten digu. Iragana agor gordetzera mugatzen gaitu. Galduz doa errealismo sana eta kristau-zentzua. Premia gorrikoa da konfiantzaren Eliza eraikitzea. Jainkoaren ahala ez da agertzen Eliza boteretsuan, baizik umilean.

«**Seme bat izango duzu eta Jesus izena ezarriko**». Andre Mariari bezala, guri ere egiteko bat eman digu Jainkoak: gau ilunean argi egiten laguntzea. Ez zaigu eskatu mundua juzgatzea, baizik esperantza ereitea. Gure egitekoa ez da itzaltzear den argizari punta erabat itzaltzea, baizik fedea piztea, jende askorengan erretzear dena: gizartzen duen galdera da Jainkoa.

Geure elkarteetatik, gero eta txikiago eta umilago diren horietatik, mundu sanoago eta haurridetsuago baten legamia izan gintezke. Esku honetan gaude. Jainkoa ez du krisiak jo. Gu geu gara Jesusi pozik eta konfiantzaz jarraitzera ausartzen ez garenak.